

**661/2022 EBAZPENA, UZTAILAREN 22KOA, OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUKO GIZA BALIABIDEEN ZUZENDARIARENA, HONAKO EBAZPEN HONEN HUTSAK ZUZENTZEKOA: UZTAILAREN 19KO 658/2022 EBAZPENA, ZEINAREN BIDEZ DEIALDIA EGIN DEN ERIZAIN LANPOSTU BAT BETETZEKO BEHIN BETIKO BARNE-MUGIKORTASUNAREN / ALDI BATERAKO BARNE-SUSTAPENAREN / ZERBITZU-EGINKIZUNEN BIDEZ, OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUKO ZUZENDARITZA NAGUSIAN ERIZAINZAKO ZUZENDARIORDETZAREN ARDURAPEKO ZAINKETEN ERREGISTROAREKIN ETA INFORMAZIO KLINIKO ETA ASISTENTZIALEKO SISTEMEN ERREGISTROAREKIN LOTUTAKO LERRO ESTRATEGIKOAK KOORDINATU ETA GARATZEKO.**

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Giza Baliabideen zuzendariaren uztailaren 19ko 658/2022 Ebazpenaren bidez (uztailaren 22an argitara emana), deialdia egin zen Erizain lanpostu bat betetzeko behin betiko barne-mugikortasunaren / aldi baterako barne-sustapenaren / zerbitzu-eginkizunen bidez, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Zuzendaritza Nagusian Erizaintzako Zuzendariordetzaren ardurapeko Zainketen erregistroarekin eta Informazio kliniko eta asistentzialeko sistemen erregistroarekin lotutako lerro estrategikoak koordinatu eta garatzeko.

Lanpostu funtzionalean akats bat antzeman denez, honela zuzendu behar da:

Honakoa esaten den lekuan:

**POSTUA:** erizaina, erizaintzako zuzendariordetzaren baitan zainketen erregistroarekin eta informazio kliniko eta asistentzialeko sistemekin lotutako ildo estrategikoak koordinatzeko eta garatzeko lanez arduratzeko.

Honakoa esan behar du:

**LANPOSTUA:** Arlo Korporatiboko Teknikari Arduraduna (Erizaintza arloa), Erizaintzako Zuzendariordetzaren ardurapeko Zainketen erregistroarekin eta Informazio kliniko eta asistentzialeko sistemen erregistroarekin lotutako lerro estrategikoak koordinatu eta garatzeko.

Era berean, eskabideak aurkezteko 20 egun balioduneko epea irekiko da berriro, Ebazpen hau argitaratzen den egunaren hurrengo egunetik hasita.

Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsua aurkeztu ahal izango zaio Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiari. Horretarako, hilabeteko epea izango da, Ebazpen hau argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko uztailaren 22a.



**OSAKIDETZAKO GIZA BALIABIDEEN ZUZENDARIA**

Luisa Larrauri Ereñozaga



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

OSASUN SAILA  
DEPARTAMENTO DE SALUD